

TOKIKOM

2016ko urria | 163. zenbakia

ai!r!

txorierriko aldizkaria



Baserri Antzokia

Euskaltzaleen
topagunea



Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HORTZ KLINIKA
GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implantak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira



**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

Susterrak Taberna

Mortzilak
Azaroak 10, 11 eta 12



Zamarripa Enparantza, 2 944069027
48170 Zamudio



ARTEA & EROTA
JATETXEA

Ospatu gugaz
Sanmartinak

Azaroak 5 eta 6,
menu bereziak

Azaroak 10, 11 eta 12,
mortzila-janak

Arteaga auzoa, 63
48170 Zamudio
94 452 10 80
restaurant@arteaeerota.com
www.artaeerota.com

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Esti Castañón, indar entrenatzailea
-  **12** Gurean izan da... Maribel Salas, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Xabier Mentxaka
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Txorierriko Baserri Antzokia
-  **22** Zamudioko Sanmartinak
-  **25** Nekazaritza ekologikoa: neguan zer landatu
-  **26** Euskal ezkontza, Sondikan
-  **28** Domu Santuko etorkizun iluna
-  **30** Taldeak/Elkartek... Leun musika taldea
-  **32** Bendeja-saltzaileak, Loiun
-  **34** Teknologia... mintzatu.eus webgunea
-  **35** Aikorrizketa... Erdaldun konpatiblea
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



21 Zamudioko San Martin jaia



28 Domu Santuko etorkizun iluna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorriketan,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Eduardo Delgado, Gaizka Eguzkitza
eta Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Joseba Butroe, Itsasne Zubiri, Juanjo Ortiz Llamosas,
Ana Apika, Xabier Díaz, Oihana Astobieta eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Gure nazionalitatea

Berriro ere, urtero legez, Hispanitate eguna ospatu behar izan dugu hemen ere, han bezala; denok Espainiakoak izanik, ezta? Denok espaininolak, modu ofizialean hori gara-eta. Bai, gero, Europara, Ameriketara-eta goazeanean, "A, Bilbokoa? Espainiarra, orduan?" esaten digutenean, igual azalpenetan hasten gara -batzuk, behintzat-, esanez ze, bueno, izatez euskaldunak garela, baina... Bada-kizu, inora ez doazen koplak, ze, jendearentzat, Espainiako bazara espainola zara, eta kito. Kontu sinplea da. Karnetea eta pasaportean horixe daukagu ipinita, zalantzarik geratu ez dadin.

Eta kontuak zer diren. Euskal Herriko gehienok ez gara izan inoiz ez espainiar, ez frantses. Eta pertsona moduan eskubidea dugu garena izan ahal izateko, ez beste batzuek nahi dutena izan behar izateko. Guk eskubidea dugu euskaldun/vasco izateko ofizialki, munduaren aurrean, pertsona moduan izen bat edukitze-

ko eskubidea dugun legez. NBE-ren (ONU) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean (1948) jasota dago nazio-tasun eskubidea, 15. artikuluan: Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere. Baina, gure aurrekoak bezala, aita-amak, aitita-amak... gure seme-alabak espainol-frantses inskribitzen segitu beharko dugu, eta espainol edo frantses gisa hil. Kasurako, ez dugu geure izena zertan eduki beste batzuek nahi duten moduan, gure euskal izenak (Garbiñe, Inaki...) ofizialki horrela izatea, eskubide hori errespetatua izatea kostata lortu genuen, baina gure nazionalitatearen errespetutik urrun gabiltza.

Katalanak, oster, bidean doaz. Urrun barik, eurak direna izan ahal izango dira. Duten eskubidea ofizial egitera doaz, munduaren aurrean. Eta inbidiekin



JOSEBA BUTROE
(Irakaslea)

batera gogoa ere sentitzen dugu nazionalitate katalana eskatzeko: ezin badugu euskal nazionalitatea eduki, zergatik ez katalana? Xabierreko Frantziskok egin zuenaren bidetik: hark ere, Nafarroa gaztelarrek konkistatu eta erbeste-teratu behar izan zuenean mundutik ibiltzera, nazionalitate portugaldarra hartu zuen, ez zuelako bizi nahi espainol izanik. Nafar estatua galduta, naziotasuna ukatuta, gurago izan zuen portugesez hil.

Itzela da, gero, Loiun pasaten dana! Ikastetxe mota asko dagoz. Gehienak, ganera, gizarte-maila altukoak eta erlijiozkoak dira. "Eta eskola publikorik ez daukoe?" galdetu eustan lankide batek. Penaz eta auzo lotsaz ezetz erantzun behar izan neutsan. Eskola publikoa ez da doako hezkuntza eskubidea bermatzeko lekua bakarrik, hori baino askoz gehiago da. Batez be, herritarren arteko harremanak sendotzeko gunea dala esango neuke, umetan lagunak egitekoa eta gurasoen artean kuadrillak sortzekoa be bai. Eskola faltaren ondorio garbiena da 80ko hamarkadatik aurrera jaiotako loiuiztarrok ia ez dogula alkar ezagutzen.

Eskola publikorik ez?



OIHANA ASTOBIETA
(Irakaslea)

Ganera, eskola herriko bizimoduari batuta egoten da, eta horrek herriari bizia emoten deus. Kontuan hartzen badugu Loiun gero eta jente gehiago bizi arren, herriko bizia ez dala proportzino berean hazi, eskolaren falta igarri-igarria dala ez dago zalantzarik. Argi dago borondate politikoa behar dala holango proiektu bat martxan jartzeko. Ia herriko agintariak arazoa konpontzeko pausuak emoten hasten diran. Haurreskola zabalduz, adibidez; sa-soia da eta!

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

150 ibilgailu klasiko inguru, Loiuko plazan



Urriaren 9an Klasikoen Kontzentrazioaren VI. edizioa egin zen Loiun, Udaren eskutik eta Txoribikers eta Iker eta Juan Carlos Kamiruagaren laguntzaz. Aurreko aldietan ez bezala, eguraldi onak edizio arrakastatsua bermatu zuen eta jendez bete zen Loiua. "Inoiz baino jende eta auto gehiago izan dira Loiun. Balantzea oso positiboa izan da, errepikatzeko modukoa", azaldu du Josu Andoni Begoña alkatea. Guztira, 142 autok eman zuten izena lehiaketan, baina horiez gain, ibilgailu gehiago izan ziren bertan: motorrak, furgonetak...

Iraganeko ibilgailu ugari ikusi ziren goizeko lehen ordutik eguerdira arte: motorren artean 1928ko BSA B27 batek

jaso zuen motorrik zaharrenaren saria. Autoei dagokienez, 1929ko Chevrolet batek zaharrenaren saria jaso zuen eta eta Ford Mustang batek, autorik dotoreenarena. Deportiboenaren saria Austin Healey 3000 batentzat izan zen, eta Loiura hurbiltzeko ibilbiderik luzeena egin zuena ere saritua izan zen: Mercedes 300SL bat izan zen, Zaragozatik etorritakoa. Egun erdian zehar jarduerak ugari izan ziren, 10:00etatik 14:00ak arte. 11:30ean, autoen ibilbidea egin zen Txorierri zehar eta 12:30ean ikusleek botoa eman zuten, ibilgailuak sailkatzeko. 14:00etan, sariak banatu ziren. Ekitaldiari amaiera emateko, Loiuko Udalak hamai-ketakoa prestatu zuen Loiuko Hotelean.

Gastronomia eta Artisautza azoka, Loiun

Urriaren 16an, igandean, Loiuko Gastronomia eta Artisautza Azokaren 24. edizioa egin zen. Hainbat jarduerak izan ziren Alonsotegi plazan eta herriko frontoian: herriko eta inguruko baserri-tarren animaliak, produktuak, ume-entzako ekintzak, artisautza jarduerak, pintxo-pote solidarioa, herriko bendeja-saltzaileei egindako omenaldia.

Eguerdian, 12:00etan, Bizkaiko txakolinaren eta euskal baserriko oilaskoen dastaketa izan zen. Beranduago, 12:30ean, Loiuko bendeja-saltzaileei egingo zitzaizkien omenaldia. Haiek baserriko produktuak ekoiztu eta saldu egiten dituzte Bilbon. 13:00ak aldera herri kirolen erakusketa antolatu zen eta, jarduerari amaiera emateko, Akerbeltz taldeak erromeria eskaini zuen 15:00etan.



MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

ama taberna
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 6 DERIO
944541655

KAFETEGIA IAZI JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12. behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Gaztelumendi eta Maia, Larrabetzuko Bertso Afarian

Urriaren 21ean bertso afaria izan zen Larrabetzuko Horibai Gazte-txean, 21:00etan. Larrabetzuko Itallen bertso eskolak antolaturiko eta Hori bai Gaztetxeak eta Gupide elkarteak laguntza lanetan egonda-ko ekitaldian, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak izan ziren. Azken 10 urteetan bertso poteoak izan duen harrera ikusita, hurrengo urratsa ematea erabaki zuten Itallen-ekoek:

“Nukleo bertsoza-lea dago herrian, eta honek harrera ona bermatu digu hilaren 21ean”, azaldu du Etxahun Lekuek, antolaketa-tik.



100 URTE FAMILIA ETA LANARI LOTUTA.– Pantxike Zabala Batizek 100 urte bete zituen urrian eta omenaldia egin zitzaion Lezaman. Ekitaldia egin eta astebete igaro zenean zendu zen emakumea. Istorioren betetako andrea izan zen, zortzi urte baino ez zituela lanean hasi zena. Lezaman elikagaien denda zeukan eta jubilatuz bezain laster negozioa itxi eta bidaia asko egin zituen. “Familiari eta lanari eskaini zion bizitza osoa”, azpimarratu du Alain Ponpoxo bilobak.

Lzpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
arregandik gerta
ARROKULARITZA - TASATZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALEROSKETEAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Aenak beste 400 etxebizitza intsonorizatuko ditu

Sustapen Ministerioa eta Aenak prentsa ohar baten bidez adierazi duenez, Bilboko aireportuak bilera berria izan du aireportuaren Ingurugiro Jarraipen Komisioarekin. Bertan izan dira Derio, Erandio, Loiu, Sondika eta Zamudioko udal ordezkariak, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeritzako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzakoak, Espainiako Gobernuren Euskadiko Ordezkaritzakoak, Bizkaiko Foru Aldundikoak eta Aenako ordezkariak. Gai nagusia eraikuntzen egokitzapen

akustikoa izan da, zeinetan guztira 20,6 milioi euro inbertitu baitira. Momentura arte, 1.304 etxebizitza intsonorizatu ditu Aenak Txorierrin, Aireportuaren Isolaketa Akustikoaren Planean. Bileran, besteak beste, aurreko lanen ondorioez aritu dira, aireportuko inguruetak 130 etxebizitza intsonorizatzeko eta beste 37 etxebizitza egokitzeko hurrengo hilabeteetan. Horiez gain, beste 362 etxebizitza akustikoki egokitzeko argi berdea eman du Aenak aurreragorako.



Sondikak Enologia Eguna errepikatu du

Urriaren 23an Enologia Eguna egin zen Sondikako Goiri enparantzan, 12:30etik 15:00etara. Edizio berri honetan bederatzi ardo deitura izan ziren bertan: Errioxako ardoak, Rueda, Rías Baixas, Nafarroako ardoa, Somontanoak, Penedés-koak, Jerez, Bierzo eta Txakoliña. Ardoaz gain, gazta dastatzeko aukera izan zen bertan. Dastaketarako kristalezko kopak saldu ziren, eta herriko hainbat enpresa zuen kopa etxera eramateko aukera egon zen. Ardoaz gain, Sondika Berton Merkataritza Elkartea izan zen eta zortzi postu prestatu zituen, euren dendetako produktuekin, arrazoizko prezioetan.



Omenaldia, Zamudioko medikuari

Fernando Pérez Zamudioko familia-medikua jubilatuta berri da eta horren haritik, omenaldia egin zioten urriaren 30ean, Zamudioko udaletxe aurreko plazan. Bertan, harreraz gain, dantzarien aureskua izan zuen. Omenaldiaren ostean, Aretxarte hotelera 200 lagun inguru joan ziren bazkaltzera, eta kafearen orduan oparia egin zitzaion medikuari. Guztira, 25 urte eman ditu Fernandok Zamudion mediku bezala lan egiten, eta hain da preziatua herrian, ezen azaroaren 10ean San Martin jaietako txupina botako du.

Txakurgune berria, Zamudion

Bidekoetxeko zonaldean 1.200 m²-ko txakurgunea eraiki du Zamudioko Udalak, urriaren hasieran. Helburu nagusia txakurrak bertan aske egotea da herritar eta animalien arteko elkarbizitza hobetearren. Zonaldea hesi batez mugatutakua dago eta sarrera bidegorrian izango da. Bertara igartzeko Zamudioko Hiritartasun txartela behar izango da. Txakurguneak aterpea dauka eta bertan zenbait eserleku ageri dira: "Horrela, egun euritsuak ez dira arazoa izango aisialdia txakurrekin igartzeko", adierazi du Udalak. Horrez gain, zonaldeak zakarrontziak eta animalien gorotzak batzeko materiala eskaintzen dio erabiltzaileari, baita txakurrentzako iturria ere.

Altzorak turroi ikastaroa antolatu du

Altzora Sondikako Euskara Elkarteak turroiak egiteko bi orduko ikastaroa prestatu du azaroaren 16an, Derioko Baserri Antzokian, 19:00etatik 21:00etara. Maite Ortegak eta Pepelu Fernández irakasleek azalpenak emango dituzte ikastaroaren lehen zatian eta bi motatako turroi bi egingo dituzte: gorringozkoa eta intxaurrezkoa. Erakusketaren ostean, ikasleak binaka jarriko dira eta elkarrekin intxaurrez motako turroia egingo dute.

Ikastaroaren azken fasean, errezeta emango zaie partaideei eta bikoteetako batek turroia etxera eramango du, hozteko. Hurrengo egunean erdibituko dute. Ikastaroak 10 euro balio du berbagune koentzatzat eta Baserri Antzokiko bazkideentzatzat, eta 15 euro gainerakoentzatzat. Parte hartu nahi izatekotan, azaroaren 2a baino lehenago izena eman beharko da 635 75 35 95 telefono zenbakira deituta.



a: cocinandoentredosmares.blogspot.com.es

BOLALEKU
JATETXEA

Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzu Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

TURREGOITI
JATETXEA

Laura eta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteturregoitik.com

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Basako Txakolina
Dinamizazioa eta enpresa

Goitioztza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama


LEJARRENE JATETXEA

Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txanero etorbidea, 3-4
413, Sulegoa
48190 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net



OPORRAK, 56 ARGAZKITAN.– Altzora Euskara Elkartek argazki erakusketa prestatu du azaroaren 24tik abenduaren 8ra, Sondikako Udal liburutegian. Urtero bezala, argazki lehiaketaren gaia Oporrak izan da, eta guztira 56 argazki ikusi ahal izango dira liburutegiko hormetan eskegita. Horietako 10 lehiaketako finalistenak izango dira, formatu handian inprimatuta. Aurtengo irabazlea Nahia Eguskizaga izan da, Indian egindako kolorez beteriko erretratuarekin. Argazkian gizon nagusi bat ageri da, eskailera batzuetan eserita, bakardadean. Urteak daramatza Nahiak Oporrak lehiaketan parte hartzen, eta aurten lehen postua bereganatu du bere oporren oroitzapen horrekin.



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

elekma
LARRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETXETRESNA ELEKTRIKO TROKAK

Lehenengo markak • Precisiak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasariak onak, 25-074 • 48180 lotu
T: 944 539 232
www.elekma.es



**TABERNA
GAZTEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



48196 LEZAMA Buzkale

S.T. LEGU
BERRITASUNAK ETA BERRIKUNTZA

☎ 94 455 64 17

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gotikotza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

berbalaguna.

KONTURATZERAKO EUSKARAZ.



EMAN IZENA!

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,
jende berria ezagutzeko,
ilobarekin hitz egiteko.
Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.
Nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Irailean eta urrian

Kontaktua: BERBALAGUN | 635.75.35.95 | txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak





Esti Castañón Rodríguez | Indar entrenatzailea

Aitita Estatu mailako halterofilia txapelduna izan zen iraganean: 1953an eta 1961 bitartean Estatu mailako txapelduna izan zen. 1955ean Mediterraneoko jokoetan parte hartu zuen eta 1960an Erromako Olinpiadetan izan zen. Horrek guztiak zeharo kutsatu zuen biloba. Txikia zenetik, kirol munduan murgildu zuen Jesús Rodríguezek Esti, eta neskatoa, eskolan gimnasia erritmikoa eta institutuan atletismoan aritu izan bazen ere, helduaroan indar entrenamenduetan hasi zen jo eta su. Gaur, aitatik berak Lezaman eraikitako gimnasioan Power Lifting-a praktikatzen du press banca, eserketak eta pisu hileko ariketak eginez, lehengusuekin batera.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com
[instagram.com/jongoikoh](https://www.instagram.com/jongoikoh)



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



bai
euskara

Bai Euskarari
Zurtagiria,
eta ezkerretik
eskuetik aurrera

zurtagiriarenbaita.com baita.com urratsbiziak.com

[@baita_euskara](https://twitter.com/baita_euskara) [facebook.com/baita.euskara](https://www.facebook.com/baita.euskara) www.baita.euskara



“Aktorea izatea bizi-filosofia bat da”

t: Gaizka Eguzkitza

Zer da *Tipos de tipos*?

Hainbat emakume antzezten ditugu: litxarrerria zale bat, azti bat, hiltzaile bi... La Lalulú Teatro konpainiaren eskutik. Askotan aktoreok ezin dugu aukeratu, norbaitek proiektua aurkezten du, eta guk horrela egin behar dugu. Lalulú Teatron, al-diz, geure proiektua da eta oso gustura gaude, lankideok lagunak ere bagarelako. Lalulú Teatroni esker guk nahi dugun antzerkia egiten dugu.

Hainbat pertsonaia egiten dituzue antzezlanean, denbora labur batean, eta hori polita bezain zaila izango da.

Bai, aktoreon ikuspuntutik, antzezlana oso arina da, pertsonaia ezberdinak jorratzen ditugulako. Oso aberasgarria da, erregistro pilo bat lantzen dugulako.

Ospea Vaya semanita saioari esker lortu zenuen, baina ez zen hori inondik inora zure lehenengo lana.

Ez, beste teleaio batzuk, antzezlanak eta abar eginda nituen *Vaya semanita* saioaren aurretik. Batez ere, antzerkia; ez diot inoiz antzerkia egiteari utzi. Kafe-teatron ikasi dut aktorea izaten. Hasi nintzenean, aukera handiagoa zegoen antzezlanak egiteko: dirua inbertitzen zen, hainbat areto zeuden... Garai hartan aktorea izateko eskolarik onena zen, aretoz areto hainbat antzezlan egiteko aukera genuelako. Horrek izugarrizko hezkuntza eman zidan.

Nondik datorkizu aktore izateko grina?

Beti eduki dut barruan, sasi lo-kartuta, eta gaztetan ez nekien hori nire ogibidea izango zen edo ez. Aktore izatea bizi-filosofia bat da,

MARIBEL SALAS | aktorea

Vaya semanita saioak ospea ekarri zion, baina Maribel Salas aktoreak (Barakaldo, 1965) batez ere antzerkia landu du bere ibilbidean zehar. Eta antzezlan batengatik etorri da, hain zuen ere, Txorierrira. Maribelek *Tipos de tipos* antzezlana taularatu zuen Sondikako Kultura Etxean, Gemma Martínez eta Sol Magunarekin batera.



horrek bizimodu ezberdin bat dakarrelako: lanean –eta batzuetan maitasunean– egonkortasunik ez, ezohiko ordutegiak, bidaia... Lan egiteko era bat baino gehiago bizi izateko era bat da aktore izatea.

Duela 25 urte lana utzi zenuen eta aktore izateko erabakia hartu zenuen. Zelan eman zenuen jautzia?

Nik Kudeaketa-informatika ikasi nuen eta enpresa on baten kontabilitate atalean hasi nintzen lanean. Lana ona zen, eta lankideak, zoragarriak, baina ez nengoen pozik. Egun batean, Getxoko antzerki eskolako esku-orri bat irakurri nuen eta ez nuen bitan pentsatu. Edozeinek gomendatu zidakeen lanean jarraitzea, baina nik aktorea izan nahi nuen. Harrezkero, gorriak ikusi nituen, batez ere ekonomiki, baina senideek eta nire senar ohiak izugarriko laguntza eta babesa eman zidaten. Gainera, pertseberantziari eta ogibide horri diodan maitasunari esker aurrera egin nuen. Ez naiz damutzen, ez horixe!

Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Tallera, 5
48170 Zamudio
94 455 05 85

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA
Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Unibe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Garmendia ardoak
Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Faxa: 94 452 00 49

Eta gero *Vaya semanita* saioa etorri zen...

Bai, *Vaya semanita* inflexio-puntua izan zen nire ibilbidean. Euskal Aktoreen Batasuna elkarrekin antolatutako gala bat aurkeztu nuen eta bertan ezagutu nuen Oscar Terol. *Vaya semanita* saioaren zuzendaria izan zen Terol, eta berak deitu zidan han parte hartzeko. Nire ustez, saioa eromena zen, egurra alderdi politiko guztiei ematen genielako, EAJ barne. Politikoki oso arriskutsua iruditzen zitzaidan eta ez nuen uste luze iraungo genuenik. Zorionez, okertu egin nintzen.

Nolako garrantzia ematen diozu saio horri?

Nire ibilbidean giltzarria izan zen: saioari esker famatu egin nintzen eta askoz errazago egin zitzaidan lana aurkitzea. Hala ere, Euskal Herri mailan ere izan zen oso garrantzitsua, *Vaya semanita* saioak politikari buruz hitz egiteko era aldatu zuelako: lehen, ez zen horren inguruko umorerik egiten, gaia oso mingarria zelako. Saioak tentsioa bigundu zuen, nolabait esanda.

***Vaya semanita* saioa oso arrakastatsua izan zen Euskal Herrian, baina Madrilera eraman zenutenean, *Made in China* izenpean, porrot egin zuen. Zer gertatu zen?**

Hainbat arrazoi aipatu ahal ditut, baina, laburbilduz, taldea eta helburua berberak izan arren, saioa ezberdina zen. Umorea bigundu egin zen, programazio ordua ez zen batere ona izan, telebista kateak beste eskakizun batzuk egin zitzi-



gun... Guztira 13 saio eman ziren eta, nire ustez, ez zen batere txarra. Beharbada, beste era batean jorratu balute, saioak jarraitzeko aukera izango zuen. Ez dakit, telebistaren kontuak dira...

Telebistak egun batetik bestera egin zintuen famatu. Zelan eraman zen nuen ospea?

Jendearekin egotea gustatzen zait. Normalean, hurbiltzen zaizkidanek begirunea eta maitasuna adierazten dizkidan. Batzuetan, aldiz, ez da atsegin, bakarrik ez zaudelako (lagunekin edo familia-

rekin zaude eta ez duzu nahi inork haiek molestatzea) edo egun txarra duzulako. Baina tira, gehienetan polita da jendea hurbiltzea, hunkigarria. Adibidez, gaur egun Sevillan nabil lanean, eta hemengo neska batek esan zidan ni agertzen naizen telesaio bat ikusten bakarrik disfrutatzen zuela bere amak.

Zein da gehien harrotzen zaituen lana?

Etorriko dena. Batzuetan lan txarrak egin ditut, egia da, baina guztietan ikasten duzu. *Vaya semanita* saioan, adibidez, oso pozik egin nuen lan, batez ere lankideengatik, familia bezalakoak ginelako. Nik garrantzi handia ematen diot horri, lan giroari. Izan ere, batez ere nire ogibidean, goranahi eta itxurakeria asko daude eta hori niri ez zait batere gustatzen.

Tipos de tipas antzezlanaz gain, zertan zabiltza gaur egun?

No te lo vas a creer umorezko bakarriketa nabil aurkeztzen. Eta gainera, *Allí abajo* telesaioan hartzen dut parte, eta gaur egun hori nabil grabatzen. Horretan ere oso gustura gaude: batetik, *Vaya semanita* saioa taldekide eta lagun askorekin nabiltzeko; bestetik, Andaluziako lankideak ere zoragarriak direlako; eta azkenik, ikusleei telesaioa gustatzen zaielako eta horrek hirugarren denboraldia egiteko aukera eman digulako. Beraz, dena borobila eta oso pozik.

"Ez diot inoiz antzerkia egiteari utzi. Kafe-teatron ikasi dut aktore izaten"

"Vaya Semanita saioak politikari buruz hitz egiteko era aldatu 13zuen Euskal Herrian"



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5. behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

t: Gaizka Eguzkitza

“Derioko jaietan, maiatzean, GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) batzuk taloak saltzen ibili ziran, dirua jasotzeko. Era berean, “Ongi etorri errefuxiatuak” alkarteak elikagaiak jaso ebazan Greziara bialtzeko. Ekintza horren haritik, udan bidaia bat egingo dabela enterau nintzan eta neu be apuntu nintzan”, azaldu deusku Xabier Mentxakak. Gazte deioztarrak 21 urte ditu eta alkarte honegaz batera Grezian dagozan errefuxiatuen kanpamenduak bisitatzea joan zan uztailearen 15etik 25ra bitartean. “Ez ginan laguntza humanitarioa emotera joan, bazik eta eurei ahotsa emotera”.

Ez da lehenengo aldia Xabik horrelako ekintzetan parte hartzen dauena. Esate baterako, Saharan be ibilia da. “Normalean gaur egungo gizartea oso berekoa da, jentea ez da inplikaten, baina etxean holan irakatsi deustie. Izan be, Greziara furgonetaz joan nintzan aita eta amagaz”. Mentxakatarak txorie-rritar bakarrik izan ziran, baina euskaldun askogaz joan ziran Greziara. “Bidaia Estatu mailan antolatu zan, eta bost autobusetatik bi Euskal Herritik atera ziran”.

Bidaia gogorra izan zan: Bilbotik Barzelonara eta handik, Milanera. Anconako portutik ferria hartu eben Greziaraino, Tesalonika hiriraino hain zuzen be. “Asanbladak egunero egiten genduzan, beharra antolatzeko. Polita izan zan erabagiak danon artean hartzen genduzalako”. Xabik hainbat ekintzatan hartu eban parte hamar egun horreetan. “Lehenengo egunean, Tesalonikako portuan dagoan kanpamendura hurbildu ginan. Beste egun batean, Termopilas inguruan, beste kanpamendu bat topau genduan, erabat hutsik egoan konplexu turistiko batean. Kanpamendu piloa dagoz, uste baino askoz gehiago. Eta guztietan arazo berberak eta antzeko bal-

Errefuxiatuen ahotsa

Xabier Mentxaka gazte derioztarra
Greziako errefuxiatuen kanpamenduak
bisitatzea joan zan uztailean



“Errefuxiatuek ez dabe etorkizunik ikusten, eta sekulako drama humanitarioa dago”

“Errudunak gobernuak dira, geopolitika kontrolpean eukiteko astakeriak egiten dabezalako”

dintza txarrak. Negargarria da. Ez dabe etorkizunik ikusten, eta kristoren drama humanitarioa dago”.

“Aitatu beharra da hirietan jentiek, herritarrek, izugarritzko laguntza emoten deusiela eta antolakuntza ederra dagoala. Halanda be, kanpamenduetan gabezia handiak dagoz: medikuak, elikagaiak... Bizi-baldintzak oso gogorrak dira. Ezintasuna sentidutan da, gure gizarteak paso egiten dauelako. Etxean irudi hunkigarriak ikusten badoguz, berehala ahaztu egiten jakuz eta ez gara horren kontra mobilizatzeko gauza”.

Gainera, Xabik CIE edo atzerritarrak barneratzeko zentro batzuk bisitatzeko aukerea euki eban. “Kartzelak dira, errefuxiatuek ez dabe inolako komunikaziorik kanpokoakaz. Han dagozanak deportau egingo ditue. Horreetako batera joan ginanean oso hunkigarria izan zan, gurea

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



izan ezik errefuxiatuek ez ebelako inoz bisitarik jaso. Zentro horreen kontrako manifestazio erraldoi bat antolatu genduan harresien aurrean. Guztira 17 autobus abiau ginan hara. Beste manifestazio handi bat be egin genduan Tesalonikan”.

Espainiako enbaxadan

Era berean, Atenasen be egon ziran Xabi eta karabana. “Espainiako enbaxada-

ra joan ginan. Bertan enbaxadoreagaz gelditzeko asmoa genduan, gure kezak jakinarazoteko, baina azkenean garrantzi gitxiago eban enbaxadako beste langile batez berba egin genduan kalean, kale gorrian. Ezelango ofizialtasun barik, ia-ia ezkutuan. Antzeko zerbait gertatuko zala bagenkian: txantxetan esaten genduan alfonbrak garbitzen dituanak hartuko gaitula”. Errefuxiatuen aldekoek lo egin eben enbaxadako kanpoaldean eta eki-

taldi sinboliko bat antolatu eben: pasaportea erre egin ebezan.

Ildo horri jarraituz, askotan errefuxiatuen aldeko mugimenduari bortitza dala esaten jako, baina Xabik uste dau danetarik dagola. “Batzuk dinoe egurra emon behar dala, hori eraginkorragoa dalako, hedabideetan agertuko dalako. Eta beste batzuk bakezaleak dira. Gu nasai joan ginan, baina liskarrak egon ziran. CIE baten, esate baterako, manifestazio baten batzuk hesiak apurtu ebezan eta polizia gasa bota eban”. Hori izan zan hango polizia gaz euki eban arazo bakarra. “Polizia-gaz oso hartu emon ona euki genduan, eurei interesetan jakelako, itxura txarra ez emoteagaitik. Beti ibili gara oso babes-tua”.

Errefuxiatuen egoera oso gaxa da eta, tamalez, Xabi ez da batere baikorra etorkizunari begira. “Estaduek ez dabe errefuxiatuak hartzeko konpromisoa beteten. Munduan bost milioi siriari dagoz eta hareetako milioi bat errefuxiatua da. Eta gu ez gara 15.000 lagun hartzeko gauza. Penagarria da. Errudunak gobernua dira, geopolitika kontrolpean eukiteko astakeriak egiten dabezalako. Horregaitik, nik ez dot urtenbiderik ikusten. Herritarrok gure herrian bertan iraultza handi bat ez badogu egiten, gobernuak ez dabe funtsezko erabagirik hartuko. Agian, erabagi batzuk hartuko dabez, kontzientzia garbi eukiteko, baina besterik ez”. Gobernuak agian ez, baina Xabik jarraituko dau inplikaten eta proiektu solidarioetan parte hartzen.

**Hemen prestakuntzak
lana dala berarekin**

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbidetza Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Nazioarteko

Uztzagia Ibaia Kalea, 1 | 48100 - DEFRIO | Tel.: 94 403 40 60 | Fax: 94 403 40 61 | info@txorierri.net | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ZIENTZIAK BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK**

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erti mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazio goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrol goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Saimenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)



Gure hondakinak baliabideak dira; hori da gure oinarria

Proiektu horren helburu nagusia **0 hondakin sistementzako oinarriak fin-katzea** da. Zamudiok hiru hirirekin partekatzen du proiektu hori: Seveso (Italia), Halandri (Grezia) eta Cascais (Portugal). Proiektuaren barruan, lau jarduera nagusi landuko ditugu, alboko testuan zehazten diren balioak lortzeko:

1. Edukiontzietan **informazio-sistema oso bat abiaraztea, jarraipen bat egiteko eta, horren arabera, erabakiak hartzeko**. Edukiontzietan sentsoreak jarriko dira, eta horiek hainbat motatako informazioa emango digute: identifikazioa, kokapena, zenbaketa... Horrez gain, gure hondakinak jasotzen dituzten kamioietan bideo-kamerak jarriko dira eta pisu sentsore bat ere izango dute.

Jarduera honi esker, jakin ahal izango dugu zer hondakin sortzen ditugun, zenbat, zenbateraino betetzen diren edukiontzia, zenbat birziklatzen dugun... Izan ere, hondakinaren sorrerari eta kudeaketari buruz dugun irudia zenbat eta argiago izan, orduan eta erantzun hobea emango dugu: hondakinak biltzeko ibilbideak optimizatuko ditugu, baita horien maiztasuna ere, edukiontzia jarri edo lekuz aldatuko ditugu...

2. Edukiontzietan bildutako informazioari esker, **zenbait tresna ekonomiko abiaraziko dira; esate baterako, PAYT**

Hondakin-ekoizpen handiek hainbat ingurumen- eta ekonomia-arazo eragiten ditu; hori dela eta, Mankomunitateak hondakinei buruzko Europako proiektu pilotu batean hartzen du parte Zamudioko Udalarekin batera: Waste4Think (W4T).

Aurreikusitako balioak

-Hiri-hondakinaren sorrera % 5etik % 10era bitartean jaitea.

-Sailkatutako hiri-hondakinak % 30era igotzea.

-Hiri-hondakinaren kudeaketa-gastuak % 10etik % 30era bitartea jaitea.

- berotegi-efektuko gasen isurien sorrera % 10etik % 20ra bitartea jaitea.

W4T-ak 42 hilabete iraungo du. Lehen aipatutako hiriak ez ezik, beste 18 parte-hartzaile ere badaude industria, ikerketa, administrazio, unibertsitate, GKE... arlokoak.

(**sortutakoaren arabera ordaindu**). Tresna horren bitartez, zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta gutxiago ordaintzen da, eta zenbat eta hondakin gehiago sortu, orduan eta gehiago ordaintzen da. Horrez gain, sustapen-sareak ere ezarriko

dira, berrerabilpena eta kalitate handiko birziklapena sustatzeko eta, hala, bereizita bildutako hondakinaren tasak hobetzeko.

3. **Herritarrek parte hartzeko hainbat teknika** probatzea, hondakinak sortzen eta kudeatzen dituzten guztiak inplikatzuz, kanpainak diseinatzeko. Adibidez: elikadura-hondakinak sortzen diren puntuen jarraipena egitea, hondakin horiek jasotzea errentagarri bihurtuko duen sistema bat ezartzeko; jan daitezkeen elikadura-hondakinaren sorrera saihesteko lan egitea prebentzio-ikuspegi batetik; zenbait ekintza egitea mugikorretako aplikazioen eta sare sozialen bitartez kontsumo iraunkorra eta tokiko merkataritza sustatzeko; jolas serioak.

4. **Zero hondakinaren ekosistema bateranzko bilakaera** sustatzea. Horretarako, jarraipen bat egin behar da industria-arloan, Udalean eta ikastetxeetan, sortzen dena eta horren arrazoia identifikatzeko eta ekintza zuzentzaileak aztertzeko.



Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udalerri ezberdinetatik, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko konpromisoa eta lana berretsi nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa da bai erakundeak, bai herritarrak inplikatzeari, eta publikoki gaitzestea emakumeen aurkako mota guztietako indarkeriak. Konpromiso horretatik abiatuta, apustu sendoa egiten dugu indarkeriarik gabeko eta berdintasun handiagoko gizartea lortzeko bidean, balioen aldaketa bultzatzen dituzten politikak eta jarduerak garatzen. Jarraian, azaroaren 25eko Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko, udalerri ezberdinetan antolatu diren jarduera batzuen berri emango dizuegu. Aste batzuetan, agenda osoa izango duzue eskura intereseko puntu ezberdinetan.

LEZAMA:

–Azaroak 25, barikua, 19:00etan. Kontzentrazioa. **“Lezaman emakumeok libre bizi nahi dugu”**, Herriko Plazan. Antolatzailea: Moreak.

–Azaroak 25, barikua, 19:30etan. **Antzerkia**, AUSARTAK antzerki taldearekin. Kultur Aretoan.

–Azaroak 25, barikua, 17:30etik 19:00etara **“Berdintasunaren aldeko orri-markatzaileak”**, Ludotekan.

–Azaroak 25, barikua, 18:30etan. **“Maitasuna ez da indarkeria”**. Gaztegunean.

DERIO

–Azaroak 18, barikua, 18:30etik 20:30era. **“Mujeres y Hombres y viceversa”** tailerra. Gaztegunean.

–Azaroak 22, martitzena, 17:00etan. **Bideo-forum: “No estás sola Sara”**, Kultur Birikan. Antolatzailea: Sutondoan.

–Azaroak 25, barikua, 19:00etan. **Manifestazioa**. Kultur Birikatik herriko plaza-
ra.

SONDIKA

–Azaroak 25, barikua, 18:30etan. **“Errespetuzko jarrerak garatzen eta harreman sanoak eraikitzen”** tailerra.

–Azaroak 25, barikua, 19:00etan. Aterbe kiroldegitik hasita, **“Zure hondar aletxoa ipintzeko prest?”** (esku-argi martxa, manifestuaren irakurketa, irudia hareaz bete, aerobiton, txokolatada...).

ZAMUDIO

–Azaroak 18, barikua, 18:00etan. **“Tratu onen aldeko eskuen murala”** (5-8 urte) eta **“Berdintasunaren aldeko pulterak”** (8-12 urte) tailerrak. Ludotekan.

–Azaroak 24, eguna, 19:00etan. **Antzerkia eta luntxa**, Zamudiotorren.

–Azaroak 25, barikua, 12:00etan, udal-etxean eta 19:00etan, Kultur etxean. **Kontzentrazioa**.

–Azaroak 25, barikua, 19:30ean. **Emakume boxeolarien gau emanaldia**, Kiroldegian.

–Azaroak 26, zapatua, 19:00etan.

“Errespetuzko jarrerak garatzen eta harreman sanoak eraikitzen” tailerra. Gaztegunean.

LARRABETZU

–Azaroak 19, zapatua. **Autodefentsa feminista** tailerra.

–Azaroak 27, domeka, 14:00etan. **Women in Black**. Larrabetzuko Plazan. Beltzez jantzita etorri. Antolatzailea: ZUTUNIKI.

LOIU

–**“Tratu onen aldeko eskuen murala”** Zabaloetxeko eta Elotxeberri Ludoteketan.

LEHEN LAGUNTZAK

Ikastaroa
20 ordu.

NOIZ: Abenduaren 12, 13, 14, 15 eta 19an

ORDUTEGIA: 16:00etatik 20:00etara

NON: Derioko Kultur Birikan.

HIZKUNTZA: Euskaraz

IZEN - EMATEAK:

abenduaren 2ra arte

ekt@txorierrri.eu /

94-454.03.50

DOAN



Gehienez 20 pertsona.

%80ko asistentzia izanez gero diploma emango da.

Gurutze Gorriak emandako ikastaroa.

2016ko urriaren 5a gogotan izango dute Txorierriko euskaltzaleek. Egun horretan Baserri Antzokia inauguratu zen, euskararen inguruko azpiegiturarik handienetarikoa Euskal Herrian. Gorabehera askoko proiektua izan da, eta hasieran ametsa zirudiena, askoren ilusioari eta etengabeko lanari esker, azkenean egia bihurtu da. Baserria euskaltzaleen topagunea da, euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria Larrabeiti

Txorierriko euskaltzaleak ekintzaileak dira. Hasieran, euskara elkarteak sortu zituzten herri gehienetan (Tximintx, Lagatzu, Altxora, Zorritzetan eta Arrekikili); geroago, elkarte horiek guztiak batu ziren TOTOAN federazioan; ostean, Aikor! aldizkaria sortu zuten... Apurka-apurka "Euskaraz bizi nahi dut" lelo horri edukia eman diote. Azken urratsa Baserri Antzokia izan da. Horretarako, Baserri Antzokia Fundazioa eratu dute.

Zaila izan da proiektua aurrera eramatea, baina Ixone Zubietza Fundazioko kideak inaugurazio egunean adierazi zuen moduan, "Baserri Antzokia ez da berez helburua, euskara eta euskal kultura sustatzeko erreminta baizik". Era berean, Baserri Antzokian ostalaritza, dibulgazioa eta kultur zerbitzuak eskainiko dira: antzezlanak, erakusketak, kontzertuak, bilerak, kirola, ospakizunak, txapelketak,

"Baserri Antzokia ez da berez helburua, euskara eta euskal kultura sustatzeko erreminta baizik"

Baserri Antzokia txorierritarrek eginda, eta eurei dago zuzenduta



enpresentzako jarduerak... Eraikina Derion dago kokatuta, Seminarioaren atzean, eta gune hauek ditu: barruan; eszenatokia, taberna, jatetxea eta txokoak; eta kanpoan, terrazak eta aparkalekuak. Guztira, 5.400 metro kuadroko eremua.

Beste herri batzuetako egitasmoen aldean, Txorierriko Baserri Antzokiak hainbat berezitasun ditu. Horietako bat

itxura da. Industriak soloari aurrera egin badio ere, Txorierri nekazal eskualdea da izatez eta baserria nortasun-zeinua du. Horregatik ez da kasualitatea eredu hau aukeratu izana eraikinaren diseinurako. Kultura egitarauari dagokionez ere, bestelako Kafe Antzokiek eskaini ezin dituzten baliabideak eta ekitaldiak eskaini ahal ditu. Izan ere, barruko zein kanpoko ekintzak antolatzeak aukera dago.

Baserri Antzokia Txorierri sortu da, txorierritarrek eginda. Horrela bada, 2011n bazkideak lortzeko kanpaina zabaldu zen enpresa eta lagunen artean eta, dagoeneko badago beste bat martxan. "Bazkideak oso garrantzitsuak dira. Haiek sinestu zuten proiektuan, ezer ez zegoenean, ezta harri bat ere", esan du Xabier Goienetxe Baserri Antzokiaren



Kronologia:

- 2009an:** Baserri Antzokiaren ideia sortu zen.
- 2010ean:** Derioko Udalak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak utzi zuten lorsorua, bertan Baserri Antzokia eraikitzeko.
- 2010ean:** Baserri Antzokia Fundazioa sortu zuten.
- 2011n:** Lehenengo proiektua diseinatu zen.
- 2014an:** Lehenengo proiektua egokitu zen.
- 2015ean:** Lehenengo harria jarri zen.
- 2016ko urriaren 5ean:** Baserri Antzokia inauguratu zen.

Fundazioaren presidenteak. Euskal kultura sustatzeaz gain, bazkideek abantailak izango dituzte Baserri Antzokian: lehen-tasuna eta beherapenak ekitaldien sarre-rak lortzeko orduan; urtero egingo den bazkideen bazkaria, doan; txokoak aloka-tzeko aukera; onura fiskalak... Halaber, aipatzekoa da bailarako zein inguruko hainbat enpresak hartu dutela parte Ba-serri Antzokiaren eraikitze eta egokitze lanetan. "Eskertzekoa da enpresa horiek egindako lan txukuna, baita erakunde publikoek hasieran izan zuten inplika-zioa".

Baserri Antzokia txorierritarrek egin-da dago, bai, eta txorierritarrei dago zu-

URRIAREN 7TIK AZAROAREN 13RA BITARTEAN

-%20 8 koloretako larruzko besaulkien sortan*

*ikus baldintzak: www.suitdelux.com

BERRIA!
Aukerarik onena zure esku

SUIT DELUX

MARKA ESKLUSIBOAK. ATSEDENERAKO

LEIOA: La Avanzada, 80 - 944 316 516

DERIO: Seminarioa - 944 545 147



*“Hemengo ondareari
garrantzia eman
nahi diogu, bai
kulturari begira, bai
gastronomiari begira”*

*“Eraikina esanguratsua
da eta oro
har itzela da
Baserri Antzokiaren
proiektua”*

zenduta. Eraikinak elkargunea sortu nahi du baliarako euskaltzaleen, elkarten eta enpresen artean. Gure ekoizleek eta merkataritzak ere badute han lekua. “Iragana eta geroa lotzen dituen egitasmoa da, eta bere baitan gure kultura eta patrimonioa hartzen ditu”, esan zuen Unai Rementeria Bizkaiko Foru Ahalduen Nagusiak, lehenengo harria jarri zen egunean, 2015eko urriaren 30ean.

Gastronomia eta kultura

Eta ildo honi jarraituz diseinatu dute Baserri Antzokiaren gastronomia- eta kultur-eskaintza. Gorka Urrutia eta Gaizka Sainz esperientzia handiko lagunak dira eta bien artean kudeatzen dute hamar laguneko lan-taldea. Zerbitzariak eta sukaldariak, batez ere, Biek urteak eman dituzte ostalaritzan eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Besteak beste, Last Tour International euskal promozio-enpresarik garrantzitsuenean egin dute lan. “Eraikina esanguratsua da eta bai gastronomikoki, bai kulturalki itzela da Baserri Antzokiaren proiektua”, aipatu digute.

*“Euskal Herri mailan,
Baserri Antzokia
euskararen inguruko
azpiegiturarik
handienetarikoa da”*

Gastronomiari dagokionez, Baserri Antzokiak eskaintza zabala aurkeztuko die bezeroei: gosariak, eguneko menua, menu bereziak, karta, pintxoak, tartak... “Batez ere, hemengo sukaldaritza landuko dugu, munduko onenenetarikoa baita. Gurea goi-mailako sukaldaritza izango da, hemen eta inguruan ekoiztutako primera-

ko lehengaiak erabiltzen ditugulako. Kalitate ona eta gainera, poltsiko guztien neurrira”, esan du Gorkak.

“Hemengo ondareari garrantzia eman nahi diogu, bai kulturari begira, bai gastronomiari begira. Hau da, Txorierriko nekazariei zuzenean erosi nahi dizkiegu euren produktuak. Era berean, Txorierriko



Gorka Urrutiak eta Gaizka Sainzek kultura- eta gastronomia-eskaintza kudeatuko dute.



taldeek gure aretoa erabiltzea nahi dugu, antzezlanak taulartzeko edo kontzertuak emateko. Esate baterako, Aiko taldekoek astean behin egiten dute entsaioa hemen, eta hilabeteen behin, erromeria antolatzen dute. Bestetik, Baga Biga enpresarekin batera, folk jaialdia antolatuko dugu otsailerako. Hemengo talde batek eta

kanpoko talde bik hartuko dute parte. Eta taldeen jatorriaren arabera egingo dugu asteburu horretarako gastronomia-eskaintza berezia", dio Gaizkak.

Baserri Antzokiaren ateak irekita daude. "Fundazioan hainbeste urte eta lan eman eta gero, kideok ametsa bete dugu; eta Txorierri bezalako bailara baten ikus-

puntutik, gertaera gogoangarria da, kulturalki eta ekonomikoki" esan du Alfon Atela Fundazioko kideak. "Euskal Herri mailan, Baserri Antzokia euskararen inguruko azpiegiturarik handienetarikoa da". Handienetarikoa eta ilusio gehien batzen duenenetarikoa, euskarak eta geure kulturak merezi dute-eta!

16/17 IKASTURTEA UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

Sondikan hasiera mailako taldeak eguerdiz, erdu!

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA
Herriko Plaza, 3 – 48160 DERIO
Tel. 94 454 00 62 – Fax. 94 454 27 38
euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

a: Zamudioko Udala

Sanmartinak hotza, txarribodak eta odolosteen sinonimo dira askorentzat. Jaikitzean ilun dago kalea, eta etxetik urteteko gogo gitxi dago. Egia da, asoziazio tradizionala da. Garai honetan etxean trankil egotea da askori burura jatorkun gauza bakarra. Baina usteak erdi ustel; uda-goienean be eginbehar asko dagoalako, eta Sanmartinak, azoketarako egin behar dan lan gatzaz gain, parrandarako momentu ona be dalako. Giroa berotuten dalako.

San Martin jaien prelude modura, zemendiaren 5ean eta 6an Zamudioko XXXI. Azoka egingo da. Urtero bezala, Txokolate, Gozo eta Artisautza Azoka, aurten IV. edizinoa, eta Bizkaiko Limu-sin Arrazako Abeltzarien Txapelketaren XVI.a. Hilaren 5ean azokan izango diran jardueren ar-tean, azpimarratzekoak dira 12:00etan eta 13:30ean izango dan Border Collie artzain txakurren lan erakustaldia, Kotxozulo parkeko belardietan. 6an, ostera, Bizkaiko Limusin Arrazako Abeltzarien XVI. Txapelketaz gain, aipatzeko-

*Arroeta eta
Bertoko herriko
taldeek pregoia
irakurriko dabe aurten*

Sanmartinak

Garai hotzetako beroa

Egunak gero eta laburragoak dira, eta gauak gero eta hotzagoak. Udagoieneko herrietako jaiak bukatu arren, negu aurretiko merkaduak Txorierri berotzen hasi dira dagoeneko. Oraingo honetan sanmartinak izango dira zemendiko protagonistak. Urtero bezala, Txokola-te, Gozo eta Artisautza zein Bizkaiko Limusin Abeltzarien merkaduez gain, programa poten-tea dakar azaroaren 10etik 13ra bitarteko asteburuak.

ak dira 12:00etan izango dan Idiazabal gaztaren dastaketearen komentaketa eta azokara bertara jenteak soinean eroango dituan lehengo usadiozko jantzi edo arropak, onenek saria izango dabe eta.

Hilaren 10ean motorrak piztu eta argi berdea emango jake Zamudioko San Martin jaietara, arrastiko 19:00etan. Jaien hasikera berez hunkigarria izango da, Fernando Pérez familia-mediku ohiari omenaldia egingo jakolako Udaletxeko plazan. Medikuek honek 25 urte emon dauz herritarren beharrianak asetzen, eta arrastiko 19:00etan txupina botako dau.

Asteburuan berez jarduera ugari prestatuko dira, baina ekitaldi azpimarragarrienak kontzertuak izango dira, duda

*Arroeta eta
Bertoko herriko
taldeek pregoia
irakurriko dabe aurten*

barik. San Martin eleizan, XXVIII. San Martin Kontzertua egingo da, eta bertan Bidean taldeko Dabid Naclares kitar-jolea eta Idoia Kareaga txistularia izango dira. Gau aldera, 23:00etatik aurrera Oihan Vega, Tributo eta Ingu Aldeu taldeen kontzertuak izango dira. Zapatuan, San Martintxu egunean, Enkore, Reinciden-



Reincidentes taldea.



tes eta Garilak 26 taldeak egongo dira gaua berotuten.

Bestelako jardueri jagokenez, azpimarratzekoak dira herriko talde eta alkar-teek parte hartuko dituenak: eguenean globoen jaurtiketa izango da Bizi Zamudioren eskutik. Hilaren 11n, 17:00etan, Guraso alkar-tekoek haur jolasak antolatu ditue. Zemendiaren 13an, Zamudio Racing Alkar-teak Bizkaia Kopa Traila antolatu dau 09:00etan. Ondoren, aurreko eguenean bezala, Kuklux txarangeak herriko kaleak girotuko dauz musikaz beteriko kalejireagaz, eta eguerdian erreleboa pasatuko deutse Zamudioko Bertoko alkar-tekoei. Jaiei behar bezalako amaierea emoteko, domekan Irusta taldeak erro-meria eskainiko dau, 19:00etan.

Jai-egitaraua

Azaroak 5, zapatua

–10:30: Zamudioko IV. Txokolate, Gozo eta Artisautza Azokea.

Azaroak 6, domeka

–11:00: Bizkaiko Limusin Arrazako Abelgorrien XVI. Txapelketa.

Azaroak 10, eguena

–19:00: Txupinazoa eta pregoia. Fernando medikuari omenaldia.

–Globo-jaurtiketa, Bizi Zamudioren eskutik.

–Gozoki-jaurtiketa.

–Kartel lehiaketako sarien banaketa.

Azaroak 11, barikua

–12:00: Mezea.

–Luncha, elizpean.

–16:30: Karta txapelketa.

–17:00: Haur jolasak, Gurasoen Alkar-tearen eskutik.

–20:00: Zamudio Izar, Oihan Vegarekin + tributo + ingu aldeu.

Azaroak 12, zapatua

–11:00: Egur jolasak.

–12:00: Kalejirea.

–17:00: Erdizka Lauetan.

–19:30: Kuklux txaranga, kalejirea.

–20:00: XXIX. San Martin Kontzertuak. Bidean.

Dabid Nanclares eta Idoia Kareaga.

–23:00: Enkore, Recincidentes, Garilak 26.

Azaroak 13, domeka

–09:00: Bizkaia Kopa Trail, urtekerea Zamudioko plazatik, Zamudio Racing Elkar-teak antolatua.

–11:30: Kuklux txaranga, kalejirea.

–12:00: kalejira Bertoko elkar-teagaz.

–19:00: Berbena Irusta taldeagaz.



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea – 48170 – Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXARIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatzeko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ASADOR
ARAMENDI



EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

TOLDOS
TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA



Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAITARRITZA
Nerea Pedrosa Cely, 517
COOP. GASTROA ZAMUDIO-DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

hotela
jatetxea
aretxarte



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ASADOR
FUENTENE berria
"ur eta itsasoko baserria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante
JANA JATETXEA



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

luz zamudio
ARGI APARATUAK



Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Magalarte
txakolina



Iñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

75 cl.
10,75 % vol.

ARTEKABALETA KIDEEN ETXETARAKO
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión
Zamudio

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Negu aurrekoa: hausnarketa garaia

Udagoienan sartuta, ortua negurako prestetako garaia da. Uste askoren kontra, garai hotza ez da geldirik egoteko momentua, hilabete batzuetan heltzear dagoan urte neguko baratzaren nondik norakoak aurreikusteko une aproposa da. Horrela erakusten deusku Andoni Arrieta nekazariak baserriko negutegian, azanoria, letxuga, azelgea eta azen artean.

t: Zamudioko Udalak babestua

Jente askok pentsaten dau neguan lanik ez dagola soloan eta ezer gitxi landatzen dala garai hotz honetan. Baina usteak erdi ustel: aro oso emonkorra izan ez arren, bestelako gauza asko egin leikez ortuan: hasteko, laborantza garaia be bada. Berakatz freskoen, azanorien, baben, azelgen, porruen, letxugen... garaia da. Egia da negua, berez, landatzeko garai gogorra dala, baina Txorierrin udagoienak ixten dauan klima epela aprobe txau behar dogu neguko barazkiak landetako, hotza heldu baino lehen landatzea komeni dalako. Azken baten, hotzak landareen garapen prozesua moteltzen dau.

Sasoi ideala da ortuaren balantzea egiteko. Sofa hartu, eta paper baten urtean zehar hartu doguzan erabagiak zer nolakoak izan diran azterteko garairik onena da, baita datorren urtean egingo diran txandatzek nolakoak izango diran erabagiteko be. Bestalde, lurra goldetako eta ongarritzeko momentu aproposa be bada negua, eta horretarako sats freskoa lur ganean jartea komeni da. Satsa ganean egotean, eta hezetasunari esker, ongarrir natural horren propietadeak xurgatu egiten dira goian dagoan lurragaz. Sats asko badaukagu, udabarrian ez dogu motokultorea pasa beharko, satsak hezetasun asko eukiko daualako berez eta ondo baino hobeto mantenduko dalako, askotan kontrakoa pentsau arren.

Ganera, motokultorea pasetako gomendiorik onena hurrengoa da: astiro-astiro egitea. Ohituta gagoz arin baten eta esfortzu handiz egitea, eta horrela lortzen dogun gauza bakarra lurra 'apur-tzea' da, bertan dagoan bizitza deuseztatuz. Lurra landatuta, komeni da minitunelak eregitea: mini tunelak arku malguakaz eregitako negutegi txikiak dira, plastikoz estalita. Eraikuntza txiki horreek barruko



barazkien beroa mantentzeko balio dabe, neguko hotzak jasateko.

Alde batera itxi beharreko beste mito faltso bat landatu bako lursailen ingurukoa da. Negua heltzean, lursail asko abandonau egiten dira, udabarrian barriro martxan jarteko. Uste guztien aurka, erabagi hori nahiko kaltegarria da, askotan bedar txarrez bertan behera ixten diralako, eta iruditzen ez arren, gure lurrak landare horreek elikatu behar dabezalako. Hori ekiditeko, ilar baltza, baba forrajeroa eta zekale oloa bezalako ongarr berdeak landatzea gomendatzen dau Andonik. Urte bukaeran landatutako landare horreek otsailean loretan dira, eta loratu bezain pronto segau egin behar dira. Landare horreek ez dabe propietaderik xurgatzen lurretik, atmosferatik baino. Horrela, lurrak ez dau energiari xahutzen eta segautako bedarrek atmosferatik lortutako propietade horreek botaten dabez lurrera. Ongarri horreek pentsuak saltzen diran toki horreetan lortu leikez, eta saltzaileari argi itxi behar

Kontsultea:

Ixone, Sondika

Ba al dago modurik hazi hibridoak eta ez-hibridoak bereizteko?

Fisikoki ez. Jakiteko modu bakarra hazi berez zein landaretatik datorren jakitean datza. Haziak nork emon deusuzan aztertuz be jakin leiteke, konfiantzako auzotarra bada, ziurrenik ez dalako hibridoak izango. Landare arruntak, normalean, hibridoak izan ohi dira.

jako erosi beharreko ongarririk landatzeko hazi ez - hibridoak dirala.

Urtariletik aurrera, ziklo barria hasten da: urte barriaren planifikazio osoa egin behar da. Zer landatuko dogun erabagi behar dogu, hazitegiak egokitu eta txandatzeko nondik norakoak ezarri. Planifikazioa amaitzean, urte barriari eta, beraz, ziklo barriari hasiera emoteko prest egongo gara.

Sondika, ospakizunetan itota



a: Juanjo Ortiz Llamosas



Urriaren 7, 8 eta 9an, Sondika jaietan egon zen. Euskal Ezkontzaz gain, Gorantzailleak dantza taldearen mende erdiaren urteurrena ospatu zen. Euskal Ezkontzaren laugarren edizio honetan, Gabriel de Aburto y Camiruaga eta Gregoria de Etxebarriaren ezkontza antzestu zen, 1912ko azaroaren 30ekoa. Kalejiran 60 figurantek hartu zuten parte. Bertan, Gorantzailleak dantza taldeko partaideak ere izan ziren herriko medikua, alkatea, senideak eta beste hainbeste pertsonaiez gain. Ezkontzaz gain, jardueraz gainezka betetako asteburua izan genuen: ostiralean, Xabi Aburruzaga trikitilariak kontzertua eskaini zuen eta egunean zehar egondako kale animazioaz gain, ezkontza egunean 400 bazkaltiar baino gehiagorentzako herri bazkaria egin zen eta Sondikako Ipar Elaiak, Zamudioko Bertoko eta Triki-leku elkarteek, Bizkaiko Gaiteroak eta Oinarri Dantza Taldeak hartu zuten parte. "Benetan hunkigarria", horrela definitu zuen asteburu berezi hau Gorantzailleak Dantza Taldeko presidentea den Izaskun Llonak.



sarreraren salmenta
www.bbkk.es
bbk

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ZINEA



OZZY
91' AG (2D)
Azaroak 6, 17:00 (EUSKARAZ)




INFERNO
121' EG-12 (2D)
Azaroak 6, 19:30



ZIPI Y ZAPE Y LA ISLA DEL CAPITAN
105' AG (2D)
Azaroak 13, 17:00 (EUSKARAZ)



DR. STRANGE
EG-7 (3D)
Azaroak 13, 19:30



TROLLS
AG (2D)
Azaroak 20, 17:00



UN MONSTRUO VIENE A VERME
108' EG-12 (2D)
Azaroak 20, 19:30



PETER Y EL DRAGON
103' AG (2D)
Azaroak 27, 17:00

100 METROS
AG (2D)
Azaroak 27, 19:30

ETA ABENDUAN...

**NO CULPES AL KARMA DE LO QUE TE PASA POR GILIPOLLAS
ANIMALES FANTASTICOS Y DONDE ENCONTRARLOS
JACK REACHER; NUNCA VUELVAS ATRAS**



2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanetan arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

Domu Santuko etorkizun iluna

Domu Santurako ez da ezer falta eta familia gehienek euren betebeharrak egin dituzte jada: hilobiak atondu, loreak erosi eta garrantzitsuena, hilaren lehenengo egunean kanposatua bisitatu. Denborak aurrera egin ahala, gure ohiturak aldatuz doaz, eta errausketaren hedapenak eta gazteek heriotzarekiko duten jarrerak kolokan jarri du betidanik existitu den hildakoenganako ohitura hau.



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Ez dago udaren arrastorik eta iluntasuna egunen jabe egiten ari da, astiro - astiro. Urriaren azken egunak berezi xamarak izan dira familia tradizional askorentzat. Domu Santua edo Hildakoen Eguna helteaz dago eta prestaketa ugari egiten ditu jendeak azken asteotan hilerrietan. Familia askok euren senideen eta lagunen hilobiak atontzen dituzte, eta Txorierriko hilerrietara hurbiltzen dira belar txarrak kentzera eta euren 'tenpluak' prestatzera: harriak urez eta xaboiez garbitzen dira, apaindurei hautsa kentzen zaie, egun berezian ikusgarri egoteko. Lore zaharrak kendu eta berriak erosi ohi dira.

Antzina, Domu Santuko egunean, jende morda hurbiltzen zen Bilboko Ud

hilerria. Urte oparoak ziren: familia asko hurbiltzen ziren bertara, eta horrela gogoratzen dute Becedasekoek, Bilboko hilerri aurrean dagoen loradendaren lore saltzaileek: "Jendetza hurbiltzen zen eta gure negozioaren ondoan barraka bat ezarri ohi zuten, familietako umei zuzenduta. Giro zen; egun tristea baino jai bat ematen zuen azaroaren 1a Derion,

erroskillara saltzailea eta guzti zegoen". Gaur egun, azaroaren 1ean 40.000 pertsona igarotzen dira Bilboko hilerrietik, eta zifra gero eta baxuagoa da.

Heriotzaz bizi diren negozioen artean, loredendek rol berezia jokatzen dute azaroaren 1ean. Ramiro Becedas lore saltzailea lora-denda ezarri baino lehen ibiltari bezala hasi zen lanean hilerri aurrean,

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



dendarik gabe, eguzkitako baten gereizpean lanean. Urte ugari eman zituen horrela. Denborak aurrera egin ahala eta egoera horietan lan egin ostean, Udalak gaur egungo denda jarri zion Becedasi.

Azaroaren 1a data berezia eta hunkigarria da familia askorentzat, eta baita negozio askorentzat. "Urteko egunik garrantzitsuena da guretzat, baina gero eta gutxiago saltzen dugu", azaldu du Amaia Rementeriak, Derioko Liliak loradendako loregileak. Negozioan 18 urte daramatzanak lore bariatuak, margaritak, arrosak... denetarik saltzen ditu bertan: "Hasiera batean klabinak asko saltzen ziren, baina gaur egun era eta forma askotako loreak prestatzen ditugu". Antza, bertako lore ekoizle gutxi daude, lore hauek tenperatura bereziak behar dituztelako bizi irauteko: "Bertan loreak ekoiztu beharko bagenu berogailuak beharko genituzke, eta horrek dirua xahutzea esan nahi du. Hemen ez bezala, Europako lurralde askotan, Gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie lore-saltzaileei". Gaur egun, hilerrietan ikus daitezken lore gehienak atzeritik datoz: klabinak Kolonbiatik, Margaritak Aalsmerretik (Holanda)... "Kla-



Amaia Rementeria.

belinak hemen egon badaude" azaltzen dute Becedas loradendatik, "baina Kolonbiakoekin alderatuta, oso goiz zimeltzen dira", argitu dute.

Errausketa errudun

Denborak aurrera egiten duen bezala, gure ohiturak aldatu egiten dira, eta Becedas loredendan azaltzen dutenez, zaharrak hiltzen doazen heinean, gazteek beste modu batera ikusten dute heriotza: "Gaur egun ez dira loreak erosten", adierazten du Ramirok. "Antzina 30-40 € gastatzen ziren loretan. Gazteek, ostera, ez dute loreak erosteko ohiturarik, eta erosten dituzten askok diru gutxi gastatzen dute", argitzen du Ramirok. Hildakoen % 69ak erraustua izan nahi du: "Guretzat sekulako arazoa

"Gaur egun, azaroaren 1ean 40.000 pertsona igarotzen dira Bilboko hilerrietik"

"Jai bat ematen zuen azaroaren 1a Derion, erroskilla saltzailea eta guzti"

"2016an 492 hilobiratze egin dira, eta 1096 errausketa. Bikoitza baino gehiago"

da", azaldu dute Becedasekoek. Dagoeneko, 2016an 492 hilobiratze egin dira, eta 1096 errausketa. Errausketek ez dute gorpurik uzten, eta ondorioz, ez dago hilobirik. Honen faltan, ez dago loreak jartzeko tokirik. Duela zenbait urte, Derioko hilerrian baso txiki bat ezarri zuten bertan hildakoen errauskak botatzeko, beste edozein tokitan egitea legez debekatuta baitago.

Bazirudien heriotzatik bizi diren negozioak betierekoak zirela, jendea beti hil egingo delako. Baina hori ez da arazoa: hilobiratua edo erraustua izan, heriotzarekiko jarrerak aldaketa arriskutsua ekarri die Domu Santuan negozioa egiten dutenei eta garrantzia ez zaie loreei ematen, hildakoak uzten duen oroimenari, baizik.

TXORIERRI MARMOLDECIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Patxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializateak:
Xofia-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772018

Alc-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorienko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

"Mikrofonoak probatzen ari dira oraindik", adierazten du Jonek begietara begira. Urduri dabil hirukotea, baina lan fina, potentia eta berritzailea kaleratzeko ilusioz, aldi berean. Grabaketa estudioko sarrerako sofán eserita daude, agian ez da elkarriketa baterako tokirik egokiena, baina gustora daude. Gogotsu eta pozik dabilta musika taldeko kideek, eta euren artean harreman musikala baino gehiago dagoela bistan da. Lagunak dira.

Jonek eta Anttonek Arte Ederretako ikasketetan elkar ezagutu zuten, eta berehala batera jotzen hasi ziren, gero eta errekurrituagoa den akustiko formatuan. Markel beranduago heldu zen, Jazzaren mundutik. Berez, orkestra perkusioan hezitako musikaria da, baina baterian hasteko prest zegoen: "Hanka jokoen mugimenduak ikasi behar izan ditut, orkestran erabiltzen ez direlako" aitortu du musikariak. Apirilean hirukote bezala en-saiatzen hasi ziren, era ofizialean. Toe, Warpaint, Tricot edo Daughter bezalako talde modernoek erreferentziak dauzkate, baina ezin dituzte ahaztu bestelako banda mitikoek utzi dizkien aztarnak: Led zeppelin, Phil Collins, Eva Cassidy... Gustatzen zaizkien musika taldeei dagokienez, Joseba Irazoki eta Lagunak, Grande Days eta Choice datozkie burura.

Post-Rock-a eta indie estiloetan murgilduta, hiru musikariak batzean jaio zen Leun. Fonetikoki hitz suabea, bertakoa, erabili gabekoa, ahozkatzeko erraza...

Leun, hasieratik gogor

LEUN MUSIKA TALDEA

Tío Pete grabaketako estudioko ateak irekitzean eta iragabide ilun bat zeharkatu ostean, areto nagusira heldu, eta bertan topatzen ditugu. Montatzear dagoen bateria baten piezen eta makina bat mikrofonoen artean daude Jone Ibarretxe, Antton M. Goikoetxea eta Markel Badallo, Leun taldeko ahots/baxua, kitarra eta bateria. Urrian bost egun eman dute euren lehenengo EPa grabatzen, abenduan kaleratzeko asmoz.

"Lau hilabete eman genituen izen bila", adierazi du Markelek. Hiru osagarriek konbinazio berezia sortzen dute. "Post - Rock melodikoa egiten dugu, atmosfera eta giroa sortuz" adierazten dute taldeki-deek estudioko sarrerako sofa batean eserita. "Jazz ukituak ere badauzka baterian", gehitu du Markelek.

2015eko abenduan Demo proiektua kaleratu zuten Dardara Records-ekin, lau abestiz osaturiko diskoa: Slaves, The Wheel, The Beauty eta Oroimena. Apaizaren lapikoa, txikia baina gozoa. Abesti gehienak ingelesez kantatzen ditu Jonek, "batez ere erreferentziak anglojajoiak direlako. Hala ere, badago Oroimena kanta, lehen disko honek ez zuelako bertako kutsua galdu behar", jarraitu du. Soinu grabaketaz gain, bi abesti bideoz

*"Post Rock melodikoa
egiten dugu,
atmosfera eta
giroa sortuz"*

grabatu zituzten Bilboko Hacería teatroan. Kaleratu bezain pronto, Gaztea Lehiaketako Kafe Antzokia saria eta Mundaka Festibaleko Live Fagor lehiaketa irabazi zuten. "Kafe Antzokiak dirua eman zigun eta Mundaka Festibalak aurrera jarraitzeko aukera eman zigun, kaleratuko dugun disko berria grabatzeko bost estudio egun oparitu dizkigulako Tío Peten", adierazten du Jonek.

Konekta zaitez gurekin!

aikor
baserriaren kideak



Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:
@AikorTxorierri



Webgunea:
www.aikor.com





Nabarmentzea gero eta zailagoa egiten den panorama musikalean, euren toki eskuratu dute hiru gazteek, lehiaketaz lehiaketa euren bide propioa landuz eta Bilboko kafe Antzokiko edota Santana 27 bezalako eszenatoki entzutetsuenetara igoz urtebeteko kontuan. "Lantzen dugun estiloa kontuan izanda, harrera izugarria izan zuen Demok. Baina estilo honetan horixe da garrantzitsua: pertseberantzia" aipatu du Anttonek. Asmoa musikaz bizitzea bada ere, Euskal Herritik kanpo jotzea nahi dute hiru gazteek: "Lehen helburua Madril da" aipatu du Markelek, "gero, dena delakoa".

Loiuztarra, buru-belarri

Taldearen izenak Joneren ahotsa ezinhobeto definitzen du: fina, leuna eta ñabardurez beterikoa. Taldearen ezaugarriak funtsezkoena da. Abeslariak, Mungiaiko lokalean egiten dituzten taldeko entsaioez gain, orduak ematen ditu abestiak sortzen eta kantatzen Loiuko pisuan. Pisukideek hala adierazten dute. Abestiak aitaren, José Miguel Ibarretxeren, *La Parábola del Hombre Bala* (Amazon-en eskuragarri) liburuko kontakizunetan oinarrituta konposatzen ditu. "Aita berez idazlea eta gidoigilea da, eta bere kontakizu-

Abestiak aitaren, Jose Miguel Ibarretxeren, La Parábola del Hombre bala oinarrituta konposatzen ditu

"Disco berriko hiru abestik zuzenean grabaturiko bideoa izango dute"

netan ageri den kutsu ironikoari buelta bat ematen diot, abestietara moldatuz", adierazten du 26 urteko neska.

Lan berriari dagokionez, aurrekoa baino berritzaileagoa dela adierazten du hirukoteak: "Landuagoa da, eta elkar hobeto ezagutzen dugunez, gure estiloa gehiago jorratu dugu". Abenduan kalera-
tzeko asmoa duten azken lan honen izena misterio bat da oraindik, baina esan daiteke euskal ukituak presente daudela,



batez ere koruetan eta apainduretan. Seriousman Studio enpresakoak izan dira grabaketa saioak zuzenean filmatzen, disko berriko hiru abestik zuzenean grabaturiko bideoa izango baitute, Demon egin zuten bezalaxe. Asko dago egiteko oraindik, baina hori ez da arazoa Leunkoentzat, etengabe ikasten ari direlako eta geldituta geratu ez dutelako nahi: gauza berriak egitea eta etengabe esperimentatzea erruz maite dute.



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

03:00etan jagiten ziran, gauaren iluntasun itsuan, eta aurreko eguneko jasotako bendejak zaku eta kutxetan jarri ostean, emakume honeek, 'bendeja-saltzaileak' bezala ezagutuak, ortuko produktuak edo bendejak astoetan kargau eta Loiuko Larrakoetxe auzora bajatu ohi ziran, oinez, Harizmenditik edota San Migel baselizatik. Gaur egun Loiuko autobusen kotxerak dagozan tokian kamioi eta autobus baten hibridoa zan ibilgailu bat egoan erdia bidaiarientzat eta beste erdia zamak garraiatzeko prestatuta. Bertaragon eta Bilbora abiatzen ziran, Erriberako merkadura.

06:00etan merkaduaren ateak zabalitzen ziran. Hasteko, saltokia bilatu behar zan. "Bendeja saltzaileek hasikeran merkaduko solairu oso bat eukien euren ortuko produktuak saltzeko", gogoratzen

*"Bendejak asto ganean
kargau eta Loiuko
Larrakoetxe auzora
bajatu ohi ziran,
gauerdian"*

Lanera kondenatuta, bizi ahal izateko

20 emakume inguru omendu ziran urri hasikeran, Loiuko azokan. Beste aukera barik gaztetan hasi behar izan ziran lanean euren familiak mantentzeko, Loiuko produktuak Bilboko Erriberako merkadua hornituz. Emakume honeen egunei orduak falta jakezan eginbehar guztiak beteteko, goizaldeko lehen orduetatik arrastiko azken eguzki izpiak desagertu arte lanean emoten ebelako, jo eta su.

dau Maria Luisa Markaidak. "Gaur oster, metro karratu gitxiko espazio bat dago bendejerentzat". Maria Luisa 1963tik 1980ra egon zan Erriberako merkaduan danetarik saltzen: bainak, piperrak, tomateak, urazak... "Merkabilbao jaio baino lehen, Ronda eta Somera kaleak lonjez beteta egozan", gogoratu dau bendeja-saltzaile ohiak, bere lagunak diran Itziar Llona eta Maria Pilar Gaztañagaren begiradapean. Lonjetakoek produktuak erosten eutsiezan bendeja saltzaileei, eurek lako beste hainbesteri bezala. 06:00etatik 08:00etara euren produktuak saltzeaz arduratzen ziran emakumeak, eta segidan etxera bueltatzen ziran, umeak esko-

lara eroateko. Haurrak eskolan itxi ostean, etxeko lanak egiten zituen, eta amaitzean, hurrengo egunerako bendejak batzen emoten eben arrastia, deskantsurako astirik gabe.

1967an Mercabilbao sortu zan. "Bendeja saltzaileen etorkizuna kondenau eban hasikeratik", kexatu da Maria Pilar. "Batez be 1983ko aguadutxuen ostean" jarraitu dau Itziar Llona. Bendeja-saltzaile batzuk bertan egiten eben behar, eta urteetan zehar uralitako teilapean lan egin eben, kale gorrian. "Hasikeratik ez zituan nekazariak errespetatu, nahiz eta urte batzuk geroago Baserritarren pabiloia eraiki. Horretarako be gogor lan egin



behar izan genduan”, azaldu dau Maria Pilarrek. Mercabilbaok argi berdea emon eutsen kanpoko produktuei, eta gupidagabeko konpetentzia izan zan bertoko produktuak eukiezan emakume honeentzat. Horri guztiari negutegien booma gehitu behar jakon: masan produziteko sistema. Lan izugarria egin behar eben bendejerek konpetentziaren prezio barregarrirei aurre egiteko.

Neskek ez eben euren etorkizuna aukeratu; familiako herentzia kontua zan. Gizonakaz jazoten dan moduan, bizimodu gogor honek be bendejeren zahartza-

roan eragina izan dau: artrosiak, nekea, lunbalgia... “Baina gure senarrak jubilau egiten dira; gu sekula be ez” esaten dau Maria Pilarrek. Aldi berean, langile honek ez ditue inoiz ahaztuko merkaduko lan orduetan beste emakumeekaz edandako kafesneak, 15 minutuz bazan be errealdetik aldentzen ixten euskuenak.

Etsipenaren bestaldean

Piedad Martínez Conde Burgosetik heldu zan 60ko hamarkadan, eta Loiun beharrik ez egoala eta auzoko emakumeak bendejek saltzen zituela ikustean, bera

Mercabilbaok bendeja saltzaileen etorkizuna kondenau eban hasikeratik

be horretan hasi zen. Horrela, martitzen eta barikuro, gauerdian jagi eta bendejek San Migel ermitako errepide ertzean ipinten zituan, 04:00etan bultoa Erriberako merkatura eroaten zituan kamioia pasatzen zalako. Gidariaren emazteak bendeja-saltzaileak merkadura eroateaz arduratzen zan. 11:00etan Larrakoetxen bueltan zan barriro, eta zorte apurtxu bategaz, okinak furgonetan igotzen eben beste bendejerekin, ogi otarre artean. Bestela, oinez egin ohi eben ibilpidea.

Gaur egun horrela dihardu Piedadek, baina furgoneta propioagaz eta alabearen laguntasunagaz. Bere ortuko produktuez ganera, auzokideenak be saltzen ditu Erriberan. “489 euroko pentsinoagaz bizi naz gaur egun, eta bendeja-saltzaile lanak hileko erosketak egiteko baino ez deuste emoten” argitu dau andreak. Gaur lau-sei emakume ikusi leitekez bendeja-saltzaile lanean Erriberako merkaduan, metro karratu gitxiko espazioan. Profesi-noak alde onak izan arren, argi mintzatu da Piedad: “Ez neuskio bizimodu hau inori desiratuko”.



Humaning

Garapen eta Transformazio
Pertsonaleko Zentroa

Astintze 2, 1. C
48160 DERIO
606.39.33.45

www.humaning.es
info@humaning.es

Kabinete terapeutikoa

Deskodetze Biologikoa
Coaching Emozionala
Hazkunde pertsonala
Psikologia Positiboa
Obesitatea eta gehiegizko pisua
Trebakuntza-zentroa

Ikastaroak

YOGA
PILATESA
MINDFULNESS

Euskaraz, teknologiaren laguntzarekin

t: Xabier Díaz, BTEkeko zuzendaria

Tabernara sartu, eta eskatzera goazela..., zelan eskatu behar dut, euskaraz ala gaztelaniaz?... Hum... Auzo hau nahiko euskalduna da, baina... Tabernaren izena euskaraz dago gainera... Ez dauka euskaldun aurpegiarik, ordea... Ea egunkariak... Berria badauka, beraz... Inoiz gertatu zaizu, ziur aski, eta erdararik ez dakien euskaldunak ez dagoenez, askotan erdaraz berba egiten hasten gara, nahiz eta solaskideak euskaldunak izan. Estres linguistikoa esaten zaio norekin, non, noiz, zein hizkuntza aukeratu erabaki beharri. Noski, hiztuna elebakarra denean eta bere hizkuntza boteretsua bada, ez du berea erabiltzeko arazorik izaten, hau da, ez du estres linguistikorik izaten.

Bizarra bai edo ez, Ternua edo Lacoste jantzita dago, sudurraren tamaina, Alde Zaharra edo Zabalgunea... Zeintzuk dira euskaldunak propio dituzten ezauga-

*mintzatu.eus-ek
euskaraz hitz egiten
den leku guztiak
identifikatzea du helburu*

rriak? Horrelakorik ez dagoenez, Azkue Fundazioak teknologia baliabide bat jarri digu eskura: Mintzatu. Euskaraz hitz egiten den leku guztiak identifikatzea du helburu. Bere webgunea, mintzatu.eus, Android eta Apple-erako aplikazioen bidez, leku hauek identifikatzea errazten da elkarlanaren bidezko era batean.

Alde batetik, bilatzailea daukagu, euskaraz berba egin daiteken denda bat topatu edo denda jakin baten euskaraz zeinek dakien iruzkinetan ikusteko. Bestetik, lekuak edo iradokizunak gehi ditzakezu. Denda, taberna zein enpresa bat gehitu nahi baduzu, aski da lekuen zerrendaren bukaerara joatea eta "lekua gehitu" sakatzeari. Iruzkinetan enpresako nork egiten duen euskaraz, tabernetan mintzalagunekin noiz elkartzen zaren, aretoan euskaraz diren hitzaldiak noiz izaten diren edo nahi duzun informazioa gehi dezakezu. Gainera, hau

dena Twitter zein Facebook bidez partekatzeko aukera ere ematen dizu.

Sakelakoan eraman daiteken aplikazio honek ez du estres linguistikoa bakarrik laguntzen. Pentsatu Bartzelonan zaudela eta euskaraz den inguru baten egon nahi duzula. Edo New Yorken. Edo euskara ikasten zaudela eta mintzalagunen talde bat topatu edo. Zergatik ez? Sortu nahi duzula... Elkarlanean oinarritutako aplikazioa baita, denon artean eraiki, erabili eta sustatu beharrekoa.

Sakelan eramaten ditugun trasteek zeresan eta eztabaidak sortzen dituzte euren erabilera dela eta. Askotan ez daki gu seme-alaba edo ikasleekin zelan jokatu, erabilera hori ganorazkoa izan dadin. Baina gogoratu! Tresnak dira. Gure esku dago eurekin zer egin, eta badaude aplikazio hau bezain interesgarriak diren beste hainbat, eta ez bakarrik euskararen normalizazioa sustatzeko.

Gehiago jakiteko:

-mintzatu.eus

-“badu,bada”-ren estres linguistikoaren inguruko bideoa:

<https://goo.gl/LAVlqZ>

-Azkue fundazioak egindako euskal aplikazioen zerrenda:

<https://goo.gl/203Kvt>



ERREKA LONDO
ETXEA

Eguriako menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasajak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txontxi etorbidea, 9 - Lorja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 607 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

*Udagoienak ekarri deusku
haize epel eta leuna,
gure TOTOAN dinamikoak,
euskaldun berbalaguna.
Etorriko da euskal txoria
askatuko dan eguna;
gure gazteek ondo dakie
burukatuko doguna.*

Euskaraz bizi gura dugu, baina erdaldunak ditugu geure artean. Nola jokatu horiekin? Paradigma aldatzen ez badugu, erdaldunaren aurrean euskaldunok erdaraz egingo dugu.

Berbalaguna da egitarau egokia, erdaldunak konpatible egiteko; hau da, euskaldunok erdaldunen aurrean ere euskaraz egiteko. Zelan da hori? Bada,

Berbalaguna edo erdaldun konpatiblea

Berbalagunera etortzen denak, onartzen du bere presentzian euskaldunak euskaldunari euskaraz berba egitea; eta, seguru asko, etorkizunean berak ere euskaraz berba egingo du. Azken batean, berbalaguneko egitarauan sartzen den unetik aurrera konpatible egiten du –erdaldun den aldian ere– ingurukoak euskaraz mintzatzea.

Gainera, jakitunen artean onartuta dago, ez dela hitz egin behar ikasi ostean, ezpada ze, ikasi ahala; hots, ikaste-prozesu osoan berba egin behar dela.

Espainolez edo frantsesez hitz egiten dutenek esan ohi dute: zergatik egin euskaraz, denok dakigu erdara-eta? Halakoa-ri erantzutea ez da erraza, zeren ez baitu ulertzen askatasunean bizitzea zer den. Behar bada, hauxe erantzun beharko genioke: bihotzak baditu arrazoiak, arrazoiak ulertzen ez dituenak.

Berbalagunak euskalduna euskaltzale bihurtzen du, eta erdalduna konpatible, bateragarri.

Ea haizeak ez dituen eroaten gure berbak!

en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio

TEL. 94 424 38 34



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Sukaldaritza berritzailea



Masailak ardo gorrian, mikro barazki eta oregano airearekin

t: Eduardo Delgado / a: youtube.com

Osagaiak:

- 500 gr masail
- 2 berakatz
- 3 piper txorizero
- 4 piper berde
- Tomatea
- 300 ml ardo gorri
- 2 l haragi salda
- Xantana goma
- Mikro barazkiak: 4 azenario, 3 porru, 4 tipul gorri
- Oregano hostoak eta oregano loreak (100gr-ko sorta handia)

- 7 gr soja-lezitina
- Irina

Prestateko area:

Masailak markatu eta atzekalde iluna prestatu. Barazki guztiak sueztitu. Urritzen danean, ardo gorria gehitu. Barriro urritzean, masailak gehitu. Saldaz eztali eta uxtar egon arte sukaldatu. Erreserbatu. Saltsa iragazi eta xantana gehitu arin badago. Mikro barazkiak zuritu eta galdarraztu. Azkenean, plantxan markatu.

Oregano airerako, salda egin oreganoarekin eta soja - lezitina gehitu. Azkenean, emulsionatu.

Etxeko sukaldaritza

Flana, esne kondentsatuagaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak, 4 lagunentzako:

- Esne kondentsatua, 350 gramoko pote bat
- 3 arraultza
- Azukre 'bainilatu' koilaratxu bete (aukerakoa)
- Azukre karamelizatua, moldeetarako

Prestateko area:

Banakako lau molde (flanarentzako) karameloagaz igurtzi, osagaiak irabiagailuagaz nahastu eta sartu aldez aurretik berotutako labean (175°), 'Maria' bainuan, 40 minutu inguruan. Eginda dagoanean atera eta moldean laga, hotzitu arte.

a: mallorkids.files.wordpress.com



Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Anguleni 2. behe Larrabetzu-Bizkaia

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
tortak
pastelak
pastelak
Mikel Zurro, 2 - 5. larrea • Sondika, 48150 • 94 445 89 19

t o k
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
opila
edaria
9€
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

FRUTAK **BARAZKIAK**
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behe 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Umeekin zer irakurri?

Ana Apika

Idazlea: Pello Añorga.

Marrazkiak: Jokin Mitxelena.

Argitaletxea: Elkar, "Birundan" bilduma (2003)

Liburutegietan dago irakurgai.


Pello Añorga Oiartzungo idazlea irakaskale eta kontalaria da. Urte asko daramatza literaturaren munduan, eta denetarik egin du bertan. Pellori euskaraz eta isiltasunean lan egitea gustatzen zaio, eta normalean haur literatura landu du: ipuinak, poesia... Bere lanengatik sari pilo bat jaso arren, ez ditu inoiz umiltasuna eta hurbiltasuna galdu.

Egileak hainbat liburu ditu argitaratuta: *Ez dut irakurri nahi*, *Ama erraldoia*, *Jiran-Biran*, *Mux munstruoa*, *Ipuin kontalariaren arbela*, *Olentzero eta Mari Domingi*, *Arrain gorria*... Baita *Adio, adio!* ere. Liburu horretan umeekin tratatzeko gai korapilotsu bat hartu du hizpide: heriotza. Testu

Adio, adio!

poetikoekin eta leuntasunez, liburuak gizon baten istorioa hurbildu digu. Gizon horrek gehien maite dituen lagunak hiltzen dira auto-istripu batean. Ondorioz, protagonistaren sentimenduak azaltzen dira: bakardadea, tristura, itxaropena, desioak... Lehenengo momentuetan agertzen diren pentsamendu latzetatik, gertatutakoa onartu eta gero sentitzen duen lasaitasunera. Naturekiko dugun lotura ere nabarmendu da istorioan, txantxangorri bat figura metaforikoa izango balitz moduan erabiltzen baita.

Marrazkiak bat datoz istorioak duen goibel-tonuarekin, eta esanahia hobeto ulertzen laguntzen dute. Liburuak 10 urteko gorako neska-mutilentzat gomendatuta dago. Beharbada ume txikiagoei ere irakurri ahal diegu, guk izan dugun eskarmentua aipatzen badiugu eta bestelako azalpenak ematen badizkiegu.



AHOLKUA

Umeekin irakurtzeko, momentu on bat aukeratu behar da. Ohera joateko ordua oso ondo dago, bai, baina eguneko edozein momentu izan daiteke aproposa liburu batekin familian gozatzeko: bazkaldu ostean, eskolara joan baino lehen, parkean, egun euritsu edo eguzkitsu batean... Umearekin eseri behar dugu eta oparirik garrantzitsuena egingo diogu, hau da, gure arreta.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean
Asanblaketa konposatuak
Mantentze garbi-ikatzak
Buligoiak eta lokalkak
Ohera amareko garbiketa
Baseretuek
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OKILETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 96
Fax 94 454 14 18

Mungaldetxe etorbidea, 25
48160 DERIO

Azakak

Sondika

- > XX. Eskulangintza eta abeltzantza azoka. Azaroaren 13an.

Erakusketak

Sondika

- > *Album del Marqués de la Victoria*, grabatuen erakusketa. Udal liburutegian.

Hitzaldiak

Zamudio

- > Alzheimerraren inguruko berbaldia, Lagunandre elkartearen eskutik. Azaroaren 3an, 18:00etan, Zamudiotorren.

Ikastaroak

Sondika

- > Berdintsuen Arteko Adiskidetasun tailerra, azaroaren 25ean, Gaztetxean.

Derio

- > Turroiak egiteko ikastaroa, Altzora elkartearen eskutik. Azaroaren 16an. Baseri Antzokian.

Zamudio

- > Ondo Bizi Gutxi Gastatuz. Azaroaren 27an, 19:00etan, Gazte Estazioan.

Lezama

- > XI. Euskal Kantu Ikastaroa, Zorritzetan alkathea. Azaroaren 4an, 11n, 18an eta 25ean. Uribarri Topalekuan.

Larrabetzu

- > Autodefentsa feminista ikastaroa. Azaroaren 19an.

Ikuskizunak

Zamudio

- > *Atrebentziako Ipuinak*, azaroaren 11n, 18:00etan. Udal Liburutegian.
- > Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguneko antzerkia. Azaroaren 24an, 19:00etan, Zamudio-torren.
- > Umeentzako ipuin kontalaria. Azaroaren 26an, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > *Saroarekin irakurketa saioak*. Azaroaren 4an, 16:30etatik 19:30etara, Angulerin.

Irteerak

Sondika

- > Nerbioiko jausia, Santiago mendia, Orduña. Azaroaren 6an.

Derio

- > Mendi martxa. Loiuko Udalak antolatua, azaroaren 20an.

Zamudio

- > Arkamo. Azaroaren 27an, 08:00etan, Arroeta mendi taldearekin.

Lezama

- > Kabarzeno. Azaroaren 19an, 09:00etan. Altube, azaroaren 5ean; Lezama ezagutu: Iturrien Bidea, azaroaren 20an; eta
- > Itxina, azaroaren 26an. Gailur Mendi Taldeak antolatua.

Musika

Loiu

- > Diego de Amezua XI. Organo jaialdia-Bizkaiko Ahotsak 2016. Azaroaren 26an, 12:30ean, San Pedro apostoleko elizan.

Sondika

- > Sanmartinak, azaroaren 11n. Meza eta Gorantzaleak Dantza Taldearen aurrekua, Izartza auzoan.
- > Santa Cecilia kontzertua. Azaroaren 19an, 19:45etan, San Juan Bautista eleizan.

Kirola

Sondika

- > Frontenis binakako txapelketa. Azaroaren 20an.

Zamudio

- > Pisu libreko idi probak. Azaroaren 4an, 20:30ean; 5ean, 18:00etan; 7an, 20:30ean. Sarrera doan eta aterpean.
- > Zamudioko IV. Rallya. Azaroaren 25ean, 15:00etan, Zamudio Racing Elkartek antolatua.
- > Emakumeen arteko boxeoa, Aldekoa Naranjo Boxeo Elkartek antolatua. Azaroaren 25ean, 20:00etan, Udal Kiroldegian.

Bestelakoak

Txorierri

- > Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, azaroaren 25ean. Ekitaldiak egingo dira Sondikan, Zamudio eta Larrabetzun (azaroak 27).



ORDUTEGIA
Astelcheuetik ostiralera arte:
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbata:
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak.
8:00etatik irekia
WiFi gunea



AmAr
illepaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419



LEIRE BEGOÑA
ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraituz Facebook-en



OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com



HARAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik



ban
BASERRI**ANTZOKIA**

Eguneko menua
Menu bereziak



Karta



Ekitaldiak



**Taileri, 6 -DERIO-
Bizkaiko Teknologia Parkean
(Seminario atzean)
94 406 36 02**

HAIZE MAKINAK
199€ TK
ALDIENEA



STIHL®

VIKING®

**ESKaintzak
UDAZKENA 2016**

UR-GARBIGAILLAK

139€ TK
ALDIENEA



BADAUKA ZU EDUKI BEHARRE KOA?

MOTOSEGAK

199 €



BAKARRIK ZURE DENDA ESPEZIALIZATUAN



agrojardín
Astikene

BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIARAKO

Astikene ind., Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652
Fax: 944 540 653

astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com

* Eskaintzak, 2016ko abenduaren 23ra arte. Prezio hauetako dagozkien ereduak, liburuakaren 2. orrialdean ikusgai.